

## Gezurrak sinesten



Orbitan ez dakit zenbat satellite berri ipini dituzte, hondamendi artifizialak eta naturalak aurreikusit ahal izateko. Joan den hilabetean, bat gehiago, Floridatik. Satellite bidezko informazio hori klima-aldaketa neurtzeko baliaigarria ere omen da. Txilen probatu duenak badaki. Eta guk sinestu. Power Balance eskumuturrekoa gabonetan gehien saldu zen oparia izan zen. Ilarak egin ziren, 35 euro ordaintzeko.

Pukas dendetan agortu egin zitzaizen Power Balance pulsera hori. Jende askok darabil eskumuturrean, oreka, indarra eta malgutasuna ematen dituelakoan. Gurean probatu duenak badaki. Eta guk sinestu. Adibidez, erabiltzaileetako batek esandakoa da, Benito Lertxundiren kontzertuetan zorabiatu egiten zela lehen, eta eskumuturreko honekin, hara, ezetz, ez dela mareatzen. Beste batzuk, paradisu-mina arindu egin zaiela. Euskal idazle ospetsuek jantzita darabilte, eta arrakasta-emaizta hobeak lortzen omen dituzte. Beste batzuen ustez, aldiz, txorakeria da, kontu hutsa, eta ez du ezertarako balio, baina, badaezpada ere, oparitu egin diete komando-kideei, ezkutuan, jakina, Herrizaingo sailburuak borroka armatuaren amaiera gertu ikusten duela esan zuenetik, desegiteaz ala ez hitz egiten hasi haiek, eta desorekatu xamar ikusi baitzituzten azken bilera klandestinoan. Nire aldameneko askok ere probatu dute, adibidez, nire lagun baten ama oso kontent dago, egunero korrika egiten du, eta erresistentzia gehiago daukala esaten dio, eta bitxienean da ama orain bost urte auto-istripuz hil egin zitzaiola. Nire neska-lagunak, adibidez, energia askoz gehiago daukala, indar gehiago lagun berriak egiteko, horrelako pulsera beltz bat jantzita zeramala esan zidan joan den asteen, eta plazebo-efektuagatik igual, edo



José Luis Padrón

Rozas

Urkiza

agian psikologikoa ere izan da pixka bat, ez dakit zer izan ote den, baina utzi egin nau surfista batengatik. Sinestu, ez sinestu, zerbait-zerbait, beraz, badauka eskumuturreko horrek. Gune Elkartek, hilean behin, solasaldia antolatzen du Zumaiako Branka aretoan. Gizartean bizi ditugun arazo eta erronka berrien inguruan gogoeta egitera hizlari ezberdinak gonbidatzen ditu, eta aurreten, denek galdera berari erantzun behar diote: Zertan sinesten duzu? Nik, egia esan, orain ere ez dut ezertan sinesten, lehen bezala, baina presaka ibili behar dut, halere, mundu guztiak bezala egin nahirik, eta bizi-tzan zerbait sinesteko arrazoi on bat aurkitzeko. Ez baita aski esatea “ez dut sinesten”, probatu ere egin behar baitiozu jendeari. Galileo Galileik orain lauhun urte idatzi zuen *Siderus Nuncius* lan laburra. Ibon Plazaolak euskaraz bikain jarri du, efemeridea ospatzeko, Elhuyarren enkarguz: *Izarretako albistaria*. Galileok “teleskopioa” lehen aldiz erabili zuen zeruko izarrak ikusteko, eta ikuste horren berri ematen du liburu horretan. Ilargia batez ere, Artizarra eta Artizarraren lau satelliteak. Galileok, horrela, tesi heliozentristen alde egiten du. Ez genion sinestu, badakizue. 1633an Inkisizioak Galileoren aurkako epaia zabaldu zuen, Elizak eskatu ziona egitera behartu zuten eta bere lan guztiari uko egin zion. Teoriak arbuiazi zizkioten eta bizi osorako etxean izan

zuten atxilo. Horrez gero nahikoa ikusita zegoenez, azken urteak itsu pasatu zituen. Power Balance pulsera jantzita daramat artikulua idazten hasi naizenetik, eta, egia esan, ez dakit zer sinestu, baina Jainkoak bakardadeari beldurra bere irudira egin zuen teoria aise defendituko nuela sinesten hasia naiz.



Power Balance pulsera jantzita daramat artikulua idazten hasi naizenetik, eta, egia esan, ez dakit zer sinestu, baina Jainkoak bakardadeari beldurra bere irudira egin zuen teoria aise defendituko nuela sinesten hasia naiz



zuten atxilo. Horrez gero nahikoa ikusita zegoenez, azken urteak itsu pasatu zituen. Power Balance pulsera jantzita daramat artikulua idazten hasi naizenetik, eta, egia esan, ez dakit zer sinestu, baina Jainkoak bakardadeari beldurra bere irudira egin zuen teoria aise defendituko nuela sinesten hasia naiz. ■